

LUXUZKO BABESLEKU FRANKISTA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Bartzelona, 1939ko maiatza. Teresa Amatller (1873-1960) filantropoa eta Antoni Amatller txokolategile ezagunaren alaba etxera itzuli zen, Espainiako Gerra Zibila amaituta. Horixe dio Walter Cook hispanista estatubatuarrak Josep Gudiol Teresaren arte aholkulari errepublikazaleari data horretan bidalitako eskutitz batek. Berriki, Guillem Cañameras historialariak bien arteko lau gutun aurkitu ditu eta *Sapiens* aldizkariak eskusiban eman du horien berri. Testu horiei esker dakigu, uztailaren 18ko altxamendu militarrek Katalunian porrot egin ondoren, Amatller Turinera joan zela ihesi, 1937ko uda Parisen igaro zuela, baina urte hartako urriaren 4an dagoeneko Donostian zela eta han geratu zela gerra amaitu arte.

Teresa aitaren txokolate enpresako eta Passeig de Gràcia dagoen Amatller etxeko oinordekoa zen –Amatller etxea Josep Puig i Cadafalch arkitektoaren obra modernista da, Antoni Gaudíren Batlló Etxe ezagunaren ondoan dago eta bisitarientzat irekia dago egun–. Ondasunak konfiskatu eta etxea espoliatuko zioten beldur egin zuen alde Kataluniatik eta, beste 60.000 katalanek bezala, lurralde frankistan hartu zuen babesa.

Donostia erraz erori zen frankisten eskuetan 1936ko irailean. Gerrak ez zuen hondamen handirik eragin erai-



Teresa Amatller (ezkerrean), goi burgesia katalaneko beste hainbat kide bezala, frankistek hartutako Donostian babesatu zen gerra garaian. Eskuinean, 1936ko irailean hiria faxisten esku geratu zenean.

CORDON



kinetan, baina *Unidad* egunkari falangistaren arabera, donostiarraren %48k hiritik ihes egin zuen frankistak sartu zirenean. Madrildar eta, batez ere, katalan askok zona errepublikarretik ihesi Gipuzkoako hiriburura jo zuten orduan. Errepublikak baino lehen errege familiaren udatoki izana, goi-burgesiaren babesleku bihurtu zen.

Teresa Amatllerren egonaldiaz ez daukagu xehetasun handirik, “lagun batzuen etxean” geratu zela besterik ez. Baina zona nazionalen babesa hartu zuten gehienak ez ziren falangistak eta ez zuten profil politiko zehatzik. Kontserbadoreak eta katolikoak ziren, eta haien kezka nagusia estatus sozial eta politikoari eustea zen. Eta gerra ahalik eta modu erosoenean pasatzea. Niza,

Biarritz, San Ignacio, Hispano-Americano edo Príncipe de Saboya hoteletan bizi ziren asko. Gros auzoko etxeetan beste asko; hainbeste katalan hitz egiten zenez, auzoari Barceloneta esaten omen zioten. Gozotegietan *panelletak* saltzen zituzten eta urdaitegietan butifarrak.

Eta hirian ez zen soilik kultura gastronomikoa zaintzen; *La ametralladora* eta *Vértice* aldizkari falangistak bertan argitaratzen ziren eta, hala, hiria frankisten kulturagune nagusia izan zen gerra garaian. Gerra amaitzean, Teresa Amatller eta enparauak etxera itzuli ziren atzean utzitako jardunari berriro heltzeko. Baina Donostiak urte haietan izandako “loraldia” gainbehera zetorrela zirudienean, Francok erabaki zuen udak igaroAieteko jauregian igaroko zituela. ■



“Y viva España”... edo Belgika... edo Italia...

1973an Manolo Escobarrek *Y viva España* pasodoblea argitaratu zuen eta, orduz geroztik, Espainiako himno ez ofiziala bihurtu da. Baina abestia ez da espainiarra. Bi belgikarrek konposatu zuten *Eviva España* 1971n (Leo Caertsek musika eta Leo Rozenstratenek hitzak) eta Espainia turismo gune gisa goiraipatzen zuen. Gainera, belgikarren lan

horrek abesti zaharrago bat izan zuen jatorri: 1936ko gerraren urteetan Italiako faxistek falangisten alde konposatutako *Arriba España*.

Hori gutxi balitz, Manolo Escobarrek gaztelerazko bertsioa atera baino lehen, abestia nederlanderaz, alemanez, norvegieraz, frantsesez, danieraz eta suomieraz argitaratu zuten. ■